



## Enpresa handien zerga minimoa

**A**urreko hamarkadan Amazonek ordaindu zuen zerga tasa efektiboa %13 izan zen. 2020 urtean Amerikako Estatu Batuetako 55 enpresa handienek ez zuten zergarik ordaindu. Espainiako Estatuan mila miloi euro baino gehiago fakturatu zuten enpresen mozkinaren gaineko tasa efektiboa 4,57% izan zen 2019an Espainiako Ogasunaren arabera. Urte horretan bertan Euskadiko 22 enpresa handienek mozkinen %7,7 ordaindu zuten zerga gisa, eta horietako zazpi ez zuten ekarpenik egin. Eurostatek dio azken 25 urtetan Europako Batasunean elkarteen gaineko zerga tasa nominala %35tik %21,5era jaitsi dela batez beste. Munduko eta bertako politiken azken hamarkadetakoa joera enpresen zerga ekarpena -nominala eta efektiboa- murriztearen aldekoa izan da, lehiakortasun printzipioaren izenean.

Pandemiaren testuinguruan eta AEBetako Biden presidentearen ekimenak bultzatuta zerga politika hori zalantzan jartzen hasi da, bere zentzugabekeria inplizituki onartuta. Munduko zerga sistemaren bilakaeran mugarri bat ezarri zuen pasa den hilean LGEEak (Lankidetzeta eta Garapenerako Ekonomi Elkartea, OECD). Mendebaldeko herri aberatsen elkarte honek munduko Barne Produktu Gordinari %90 ordezkatzen duten 136 herrialdeen konpromisoa lortu zuen el-

Printzipioz mundu mailako zerga politikaren joera aldatzeko asmoa zuen neurriak praktikan itxurakeriatik du gehiago

karte handien zerga ihesaren aurka egiteko, azken ordura arte zalantzan izan ziren Irlanda, Estonia eta Hungaria barne hartuta.

Jakina da, 2023 urtetik aitzina urtean 750 miloi dolar baino gehiago fakturatzeko duten enpresa transnazionalen mozkinen gaineko %15eko tasa ezartzea izan zela bertako neurri nagusia. LGEEren esanetan, erabaki honek munduko ehun enpresa erraldoienetatik jasotako 125 mila miloi dolar mundu osoko herrialdeei birbanatzeko aukera irekiko du. Bestalde, aurrerantzean enpresa hauek beren jarduera ekonomikoa garatzen duten herrialdeetan ordainduko dituzte zergak (egoitza duten herrialdeaz gain), gaur egun zerga hoba-



MIKEL ZURBANO  
EKONOMIALARIA

riak aprobeztatzeko abantailak dituzten herrialdeetan mozkinak ezartzeko trikimailua alboratuta.

Teorian aurrerapen esanguratsua da emandako urratsa, baina xehetasunetan sartuta balorazioa bestelakoa da. Bigarren irizpidearen aplikazioa, jarduera ekonomikoa duten herrialdeetako zergapetzea alegia, 100 enpresa handienei egokituko zaie bakarrik. Gainera, merkataritza digitalaren gainean herrialde bakoitzak ezarriak dituen zergak bertan behera uztea eskatzen da. Gauzak horrela, herrialde txiroenek lehen baino diru sarrera eskasagoak izango dituzte.

Bestalde, %15eko tasa nominal minimoa urria da eta, areago, banaketaren formula kontuan hartuta, enpresek egoitza duten herrialdeak dira berreskuratutako sarrera gehienak jasoko dituztenak; gainerako herrialdeak eta, batez ere, garapen bidean daudenak baztertua. G7ko herrialdeek -munduko biztanleriaren %10 dutenak- etorkizuneko sarrera hauen %60 eskuratuko lukete, Zerga Justizia Sarearen estimazioak ontzat hartuta. Printzipioz mundu mailako zerga politikaren joera aldatzeko asmoa zuen neurriak praktikan itxurakeriatik du gehiago. Hegoaldeko herrialde batzuk ez dute akordioa sinatu, egoerak okerragora egiteko beldur. Munduko zerga politika bidezkoagoa gauzatzeko aukera galdu da oraingoan ere. ●